

# Euzkadi Buru Batzarreko ordezkariak MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

2017/01/16

Euzkadi Buru Batzarreko Presidentea den Andoni Ortuzar Jauna eta berarekin batera Ana Esther Furundarena Andrea, Hezkuntza, Kultura, Euskara eta Kirol gaietarako burukide arduraduna eta Kepa Aldama Jauna, Ekonomia eta Berrikuntza jarduera esparruen burukide arduraduna, MONDRAGON UNIBERTSITATEAN izan genituen joan zen ostiralean.

Bisitaren helburua, MONDRAGON UNIBERTSITATEko egungo eta etorkizuneko erronkak ezagutzea izan zen batetik eta bestetik, Unibertsitateko ikerketa ereduaren berri jasotzea.

Bisita bukatzeko, Unibertsitateko hainbat proiektu eta laborategi ikusteko aukera izan zuten.

